



BIXENTE BARANDIARAN SARASOLA

Zuregana nator gaur
Errenteri maite
lagunak badauzkatzu
eta poztu zaite
nere egitekoan
ondo naidet bete
zukin enaiz aztuko
bizi naizen arte

Ain ditut gogokoak
nik orko lagunak
oso gaztetatikan
dira ezagunak
sekula izbat txarrik
izan ez degunak
etzait inoiz aztutzen
neri orko egunak

Apaltzera joateko
zuek deituta
etxian gelditu naiz
asko sentituta
lenagoko bideri
ezin segituta
zartzeak olakoak
ekartzen dituta

Osasunetik nago
bajatu samarra
alere etzait aztuko
apirillan amarra
zer atsegiña degun
Amulletan marmarra
pena da ori utzita
gelditu bearra

Aurtengoa utziko det
beste baterako
albadet urrengoan
ez naiz gerako
Jaungoikoan laguntza
bear ortarako
ori gabe ezgera
iñor aterako

Pena artutzen det nik
pentsatzen jarrita
gozatutzerikan ez
eguna etorrita
nola jakin nai nuan
nik orko berrita
enterauko naizela
nago igarrita

Orko sukaldariak
dauzkat goguan
zein eseri leikean
orien onduan
ekartzen duten jana
probatutakuan
esan leike ezdala
oberik munduan

O zer betekara duen
Amulleta barrenak
órrekin pentsatzen gu
etxean garenak
zuek artu al dezuen
biderik obenak
laguntza izan dezan
merezi duenak

Ondo atera dezagun
orko liburua
urreratu gaitezen
bere ingurua
denon artean deguna
lanbat segurua
merezi aiña nekatzen
badegu burua

Saia gaitezen danok
lagunduz alkarri
ori egitea degu
benetan pozgarri
izan gaitezen beti
pakean egarri
zorionez bizitzen
nai badegu jarri

